

Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Ekobarometroa

2011

 ihobe



Herri-baltzua
Sociedad Pública del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA

Argitaraldia: 2011ko urria

© Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
Alameda de Urquijo 36, 6.^a 48011 Bilbao
Tel.: 94 423 07 43 • Fax: 94 423 59 00
www.ihobe.net

Argitaratzailea: Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

Itzulpena: Tisa

Liburu honen edukiak, oraingo edizioan, litzentzia honetan argitaratu dira:
Aitortu – Ez merkataritzarako – Lan eratorririk gabe 3.0 Unported
(informazio gehiago <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.eu>)



Esta publicación ha sido elaborada
con papel 100% reciclado.

Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Ekobarometroa

2011

 **ihobe**

Herri-baltza
Sociedad Pública del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA

Sarrera



Pilar Unzalu Pérez de Eulate
*Ingurumen, Lurralde Plangintza,
 Nekazaritza eta Arrantza Sailburua.
 Eusko Jaurlaritza*

Ingurumena dela-eta ekintza publikoak eragingarritasuna eta eraginkortasuna izatea, hartzaileei entzutearen eta haiek tartean sartzearen araberakoa da, neurri handi batean, betiere inplikaturako eragileekin lankidetzan landu diren erantzunak eskainiz.

Ekoeraginkortasuna Euskal Enpresan 2014 Programako lankidetzan publiko-pribatuaren kasua da hori. Programa hori, izan ere, 2010ean abiarazi genuen, enpresetako 350 ordezkari ingururekin banaka eta kolektiboki gogoeta egin ondoren. Hurbilketa horretan oinarrituta, ingurumena lehiakortasunerako faktore gisa indartzeko zenbait jarduera eta zerbitzu abiarazi genituen.

Hala eta guztiz ere, Ihobeko zuzendari nagusi Fernando Barrenetxeak nekatu gabe errepikatzen duen bezala, “Programak 2014an hasierako planteamendua-
 ren ia antzik ere ez badu, horrek erakusten du arrakastaz eta arintasunez ego-
 kitzen joan gaitzaizkiola enpresako merkatuari, eta lankidetzan jardun dugula
 ingurumen helburu lehiakorrek lortzeko, abagune ekonomiko zail batean izan
 ditugun baliabide mugatuekin”.

Industria Ekobarometro hau bereziki garrantzitsua da, zeren eta berarekin baitakar neurtzea enpresek nola hautematen duten “Ingurumena lehiakortasun-
 faktore gisa”, Ekoeraginkortasun Programaren hasieran eta programa horren
 bukaeran. Baina, batez ere, aukera ematen digu une honexetatik programa bera
 hobetzeko euskal enpresek berek igorritako mezuekin.

Honakoak dira lan honetan ikasitakoak: lehengaien kostuak gutxitzearen garrantzia, ingurumenaren arloko legedia hobeki ezagutzeko premia, adituen prestakuntza eta orientabidea eskatzeko beharra, eta motibatuta egoteko eta hobeki saltzeko aitorpen publikoak daukan garrantzia.

Gure sailaren asmoa da Ekoeraginkortasun Programaren lan ildo hauek oraindik ere gehiago indartzea –eta haien bitartez erantzutea enpresen eskakizunei, lan honetan adierazitakoei hain zuzen–, baita neronek euskal enpresa txiki eta ertainetako eta enpresa handietako zuzendariekin izaten ditudan harreman pertsonalizatu bidez ere.

Azkenik, bereziki aintzatetsi nahi ditut IPPCari buruzko Legeak ukitutako enpresak, azken urte hauetan egin duten ahalegin handiarengatik. Ahalegin hori ingurumenaren arloan aurrekaririk ez duen proaktibotasun batean islatu da. Ingurumena kudeatzeko sistema batean ziurtagiria duten enpresak ere aintzatetsi nahi ditut, ingurune guztian ingurumen-betekizunak areagotzeagatik, bai eta ingurumenaren arloko I+G egiten duten enpresak ere, EAE aberasten laguntzeko eta planetaren jasagarritasuna lortzeko produktu eta zerbitzu berrietarako anezka izan direlako.

Aurkibidea

007/008

00.- Sarrera eta metodoa

009/010

01.- Egungo Egoeran Lehiakortasuna Areagotzea

011/012

02.- Ingurumena, lehiakortasuna hobetzeko faktore gisa

013/015

03.- Euskal enpresen ingurumen konpromisoa

016/018

04.- Bezeroen ingurumen-betekizunen areagotzea

019

05.- Hornitzaileei ezartzen zaizkien ingurumen-betekizunak

020/021

06.- Ekoeraginkortasuna eta ingurumen-hobekutnza sustatzea

022

07.- Balioespen publikoa eta ingurumen-arloko inplikazioa

023/025

08.- Ondorioak

026

Erreferentziak

00.- Sarrera eta metodoa

Industria Ekobarometro honek ikuspegi analitiko berritzailea dauka, gaur arte egin diren Ekobarometroekin alderatuta; izan ere, azken horietan, industria-jardueraren ingurumen-eraginarekin lotutako alderdien azterketak garrantzi berezia hartzen zuen.. Kasu honetan, ordea, ahalegina egin da nabarmentzeko nola txertatzen den ingurumen-aldagaia enpresaren jardueran bertan, eta, zehazkiago, enpresaren lehiakortasuna areagotzeko eginkizunean. 2011ko Industria Ekobarometroa, horrenbestez, neurketa-tresna garrantzitsua da Ekoeraginkortasuna Euskal Enpresan 2010-2014 Programaren arrakasta neurtzeko, zeren eta industriaren pertzepzioa aipatutako programa sustatu aurretik neurtu baita.

Siadeco enpresak Ihoberentzat prestatu duen azterlan hau egiteko, EAeko 593 industria-enpresaren lagin erakusgarri bati inkestak egiteko prozesu bat gauzatu da, % $\pm 4,76$ ko errore marjin estatistikoarekin, % 95,5eko konfiantzartate baterako (laginketa aleatorio soil bat egiteko kasuan, $p=Q=0,5$ izaki), eta norberak on line eskuratutako galdetegi bat eta telefonoz galdetegia betetzeaz arduratutako pertsonarekin zuzenean eginiko elkarrizketa pertsonala konbinatzen zituen tekniken nahasketa bat erabiliz.

Unibertsoa 10 langiletik gora duten EAeko 4.715 enpresa industrialen multzo batek osatzen du. Laginketa hau egiteko zundaketaren oinarria, lehenago egin diren Ekobarometro Industrialetan bezala, Euskal Herriko Industria eta Esportazio Enpresen Katalogoaren datuak izan dira. Zehazki, laginketa desberdinak egin dira, % 10eko errore-marjina estatistikoarekin, honako unibertsoetarako:

- 254 IPPC enpresak. Kutsaduraren Prebentzioa eta Kontrol Integratuei buruzko 16/2002 Legeak ukitutako euskal enpresak dira. Haiei, izan ere, neurri batzuk aplikatzen zaizkie beren instalazioen ahalmen kutsatzaile handiaren ondorioz. Lege hori IPPC (Integrated Prevention Pollution and Control) Europako zuzentarauaren ordenamendu juridikoaren transposizioaz da.
- ErP enpresak. Ekodiseinuari buruzko ErP (Energy Related Products) zuzentarauak ukitutako euskal enpresak dira. Zuzentarau hori aplikatzen zaie bai energia zuzenean erabiltzen dute produktuei (motorrak, etxeko tresna elektrikoak, galdarak...), bai energiaren kontsumoan zuzeneko eragina dutenei ere (kanilak, leihoak, isolamenduak...). Lagina hautatzeko erabili den azterketaren oinarria izan da jada ukituta dauden eta 10 langile baino gehiago dituzten 226 IPPC enpresaren zerrenda, Ihobek landutakoa.

- I+G+b-an lan egiten duten 390 enpresak. Ikerketa eta Garapenarekin lotutako proiektu eta produktuak garatu dituzten euskal enpresak dira. Lagina hautatzeko erabili den azterketaren oinarria Eusko Jaurlaritzaren Gaitek eta Etorgai Programen esparruan azken hiru urteotan produktu berriak garatzeko proiektuak egiteko diru-laguntzak jaso dituzten enpresa industrialen zerrenda da, EHAAAn argitaratutakoa. Oinarri horren barruan, 10 edo langile gehiago dituzten industria-enpresak hautatu dira.
- 1.400 IKS enpresak. Ingurumena kudeatzeko sistema (IKS) ziurtatu bat (EMAS, ISO 14.001 edo Ekoscan) duten 1.400 enpresa baino gehiagoren multzoko datu adierazgarriak lortzeko laginketa-diseinurik egin ez bada ere, ausaz hautatu diren eta EAeko industria-enpresei eginiko laginketaren barruan galdetegiari erantzun dioten multzo horretako enpresen kopuru handia dela eta, esan daiteke datu adierazgarri batzuk badaudela industria-enpresa horien multzoak eginiko balorazioei buruz eta dauzkaten pertzepzioei buruz.
- Azkenik, lan honetan, euskal enpresen zuzendarien adierazpen batzuk jaso dira. Horiek Ihoberen “Claves del Ecodiseño. Retos y oportunidades en 7 mercados prioritarios” argitalpenetik jaso dira, eta ingurumenak lehiakortasunerako faktore gisa duen garrantzia azaltzen dute.

Honakoak dira enpresen lehiakortasunerako hiru helburu nagusiak: kostuak gutxitzea, produktibotasuna handitzea eta merkatu berrietara zabaltzea edo/eta nazioarteratzea

01.- Egungo Egoeran Lehiakortasuna Areagotzea

EAEko industria-enpresetan lortutako erantzunei erreparatuta, une hauetan honakoak dira enpresen lehiakortasunerako hiru helburu nagusiak: kostuak gutxitzea (% 52ren ustez lehenengo edo bigarren helburua da), produktibotasuna handitzea (% 45) eta merkatu berrietara zabaltzea edo/eta nazioarteratzea (% 40). Helburu horiek berak dira industria-jardueraren sektore desberdinek adierazitakoak, nahiz eta horietako bakoitzari eman zaion garrantziaren hurrenkera sektorez sektore desberdina izan. Horri dagokionez, nabarmendu beharra dago makineriaren eta ekipoko ondasunen sektoreak lehenengo produktibotasuna handitzea aipatzen duela (% 46) eta gero merkatu berrietara zabaltzea (% 43); produktu metalikoen sektoreak, berriz, lehenengo kostuak gutxitzea aipatzen du (% 54) eta bigarrenik produktibotasuna handitzea (% 46).


Hiru helburu horien ondoren, ondokoak datoz, garrantziaren arabera: teknologia eta berrikuntza sartzeara (% 27), finantziarioa edukitzea (% 15), giza kapitala hobetzea (% 11) eta beste enpresa batzuekiko lankidetzeta eta aliantzak (% 4).

“Viciny Cadenas, etengabe hobetzeko helburuarekin, produktuen ingurumen-berrikuntzaren bitartez bereizten da bere lehiakideetatik. Horratarako, Environdec erakunde suediarren arabera bere kateen ingurumen-ontasuna GHPen bitartez ziurtatu duen lehenengo enpresa da, eta, horrek Viciny Cadenas, S.A. erakundearen bezero nagusien interesa piztu du.”

Tomás López Alonso
VICINAY CADENAS, S.A.
sozietatearen Lidealeta Sistema
Integratuen Zuzendaria

EAEko Industria-enpresen % 42k garrantzi handia edo nahiko handia ematen diote beren enpresari aitorpen publikoa eta sustapena emateari, ekoeraginkortasunaren eta ingurumen-implikazioaren ondorioz.

ZEINTZUK DIRA ZURE ENPRESAREN LEHIAKORTASUNAREN ARLOAN UNE HONETAN DAUDEN BI HELBURU GARRANTZITSUENAK? (INDUSTRI ENPRESEN GUZTIZKOA) (%)



Iturria: Ihobe, 2011.

IPPC enpresen kasuan, lehiakortasunerako garrantzitsuentzat jotako hiru helburuak honakoak dira, hurrenkeran: kostuak gutxitzea (% 51), merkatu berriak zabaltzea edo/eta nazioarteratzea (% 40) eta teknologia eta berrikuntza sartzea (% 37). I+G+b gisako enpresetan, honakoak dira lehiakortasunerako garrantzitsuentzat jo diren hiru helburuak: merkatu berriak zabaltzea edo/eta nazioarteratzea, produktibotasuna handitzea eta kostuak gutxitzea. Azkenik, ErP enpresek lehiakortasunaren ikuspuntutik dituzten helburu garrantzitsuenak dira kostuak gutxitzea, merkatu berriak zabaltzea edo/eta nazioarteratzea eta teknologia eta berrikuntzak sartzea.

02.- Ingurumena, lehiakortasuna hobetzeko faktore gisa

Une hauetan, EAEko industria-enpresentzako ingurumenaren gaia lehiakortasun faktore bat izatea eragiten duten hiru arrazoi nagusiak honakoak dira, enpresa horiexen arabera: ingurumenaren arloko legeak, oro har –emisioak, isurketak, hondakinak, lurzorua...– (% 31), bezero diren enpresen eskakizuna (% 24) eta lehengaien eta energiaren kostuak gutxitzea (% 19).

Hiru arrazoi horien ondoren, ondokoak datoz, garrantziaren arabera: enpresako kudeatzaileen konpromiso pertsonala (% 13), irudia hobetzea (% 13), produktu jakin batzuetan eragina duen legedia –esate baterako: ErP, Reach, ROHS...– (% 10), Administrazioak, bezero gisa, egindako eskaria (% 8), berrikuntza dela-eta besteetatik bereizi nahi izatea (% 8), beste enpresa batzuekiko lehiakortasuna (% 7), amaierako kontsumitzailea den populazioa (% 6), enpresa kokatuta dagoen inguru sozialaren –auzoa, herria...– exigentziak (% 6) eta, azkenik, berrikuntza teknologikoa sartzen duten hornitzaileak.


“Ingurumenaren arloko Politikan orain arte adierazi dugun bezala, CAFek, bere industria-jarduerak ingurumenean eragina duela aintzat hartuz, ingurumena babestea erakundearen helburuen artean sartu du.

Aurrerantzean, gainera, lehiakortasun-faktore gisa erabili eta sustatuko du, bere produktuen ingurumen-zurtapena kontuan hartuz, merkatuan mantendu ahal izateko, gero eta zorrotzagoa baita Ingurumenarekiko.

Juan Gastesi Iriarte
CAF Taldeko Zuzendaritza.

Ingurumenaren arloa lehiakortasunerako faktorea izateko hiru arrazoi nagusiak honakoak dira: ingurumenaren arloko legeak, bezero diren enpresen eskakizuna eta lehengaien eta energiaren kostuak gutxitzea.

INGURUMENAREN GAIA ZURE ENPRESARENTZAT LEHIAKORTASUN FAKTORE BAT IZATEKO GEHIEN ERAGITEN DUTEN BI ARRAZOI NAGUSIAK (INDUSTRIA-ENPRESAK, GUZTIRA) (%)




Iturria: Ihobe, 2011.

03.- Euskal enpresen ingurumen konpromisoa

Azken 3 urteetan, industria-enpresen % 55ek neurriren bat hartu du **produkzio-prozesuei** dagokienez, hain zuzen ere ingurumen-eragina gutxitze aldera. ErP enpresen kasuan, proportzio hori % 67koa da; I+G+B enpresetan, berriz, % 79 da; eta IPPC enpresen kasuan, azkenik, % 83raino egiten du gora.

Era berean, azken 3 urteetan, industria-enpresen % 40k neurriren bat hartu dute **produktuei** dagokienez, hain zuzen ere ingurumen-eragina gutxitze aldera. Bai IPPC enpresentzat, bai I+G+B eta ErP enpresentzat ere, proportzio horrek % 57-% 58raino egin du gora.

AZKEN HIRU URTEETAN, PRODUKTUEN ARLOAN, PRODUKZIO-PROZESUEN ARLOAN EDO ZERBITZUEN ARLOAN, INGURUMEN ERAGIN TXIKIAGOA EKARRI DUTEN NEURRIAK EZARRI DITUZTEN ENPRESAK (%)



Fuente: Ihobe, 2011.

“Ekodiseinua berrikuntzaren ardatz bat da, eta, lehiakorra izateko, ezin da baztertu. Fagor Electrodomésticos, S. Coop., berrikuntza jasangarriarekin konprometituta dago, etorkizun arduratsu eta solidario baterako bidea delako.”

Txema Guisasola

Fagor GROUPen Zuzendari Nagusia

Halaber, azken 3 urteetan, EAEko industria-enpresen % 31k adierazi dute neurriren bat hartu duela zerbitzuei dagokienez, hain zuzen ere ingurumen-eragina gutxitze aldera. ErP enpresen kasuan, proportzio hori % 38 da, eta bai IPPC enpresetan, bai I+G+B enpresetan ere % 40 da.

Enplegu-estratuaren arabera, egiaztatzen da 50 langile baino gehiago dituzten enpresen artean, produkzio-prozesuei buruzko neurriak hartu dituztela baieztatzen dutenak nabarmen gehiago direla portzentajearen (% 75 gora) 50 langile baino gutxiago dituztenak baino (% 48). Enplegu-estratuaren araberrako aldeak nabarmenak dira, era berean, ingurumen-eragina gutxitze aldera produktuei buruzko neurriak hartzeari dagokionean: tamaina handiena dutenen artean, % 62k diote neurriren bat hartu dutela; 50 langile baino gutxiago dituztenen artean, berriz, % 36 baizik ez dira.

Ingurumena kudeatzeko sistema homologatu bat duten enpresen artean, bai produkzio-prozesuei buruzko bai produktuei buruzko neurriak enpresa gehienek hartu dituzte: % 79 eta % 60, hurrenez hurren. Horrelako ziurtagiririk ez duten enpresen artean, berriz, ehunekoak nabarmen txikiagoak dira: % 49k produkzio-prozesuei buruzko neurriak hartu dituzte; % 36k, berriz, produktuei buruzko neurriak hartu dituzte.

Ingurumen-eragina gutxitzea eragin duten zerbitzuei buruzko neurriak hartzeari dagokionez, berriz, ia alderik ez dago enpresen enplegu-estratuari erreparatuta. Ingurumena kudeatzeko sistema ziurtatuak edukitzeari dagokionez, aldiz, hautematen da gehiago jarduten dutela halako sistemak dituztenek, nahiz eta aldeak ez diren hain nabarmenak, produkzio-prozesuei eta produktuei buruz erregistratutakoekin alderatuta.

EAEko industria-enpresen % 37k adierazten dute azken 3 urteetan ingurumen-eragina gutxitzen duten eta baliabideen optimizazioa bideratzen duten produktu eta zerbitzuetan izan den berrikuntza oso garrantzitsua edo garrantzitsua izan dela


AZKEN URTEETAN INGURUMEN-ERAGINA GUTXITZEKO NEURRIREN BAT HARTU DUTEN EAeko INDUSTRIA-ENPRESEN ETA IPPC ENPRESEN PROPORZIOAREN BILAKAERA (%)

	2007	2011
Industria-enpresak	57	65
IPPC enpresak	94	89

“DANOBATEk lehiakideetatik bereizitako erantzun bat eskaintzen dio merkatuari, baliorik altuena eskaintzen duten aukeretan oinarrituz, teknologia aurreratuena duten produktuak eta mekanizazio- eta ekoizpen-prozesuekin lotutako zerbitzuak konbinatuz, gure produktuen bizitza-ziklo osoan zehar ingurumenean eraginik txikiena izatea bermatuz.”

Jon Mugartegi
 Danobat S.Coop enpresako
 Kalitate Zuzendaria.

AZKEN 3 URTEETAN PRODUKZIO-PROZESUEN, PRODUKTUEN NAHIZ ZERBITZUEN AROAN INGURUMEN ERAGIN TXIKIAGOA EKARRI DUTEN NEURRIAK HARTU DITUZTEN ENPRESAK, PLANTILLAREN ETA IKS ZIURTAPENAREN ARABERA (%)



Iturria: Ihobe, 2011.

Orokorrean, beren ingurumen-eragina gutxitzeko neurriren bat hartu dutela dioten industria-enpresen portzentajeak gora egin du azken urte hauetan, halako moduz non 2006an guztizkoaren % 57 baldin baziren, 2011n portzentaje hori gora egin baitu % 65a izateraino.


IPPC enpresen gehiengo handi batek (% 89) dio neurriren bat hartu dutela beren ingurumen-eragina gutxitzeko, baina atzematen da portzentajeak behera egin duela 2006koarekin (% 94) alderatzen bada.

04.- Bezeroen ingurumen-betekizunen areagotzea

Industria enpresen % 36tik gorak uste dute azken hiru urteetan asko (% 6) edo nahikoa (% 30) handitu dela bezeroek ezartzen dituzten ingurumen baldintzen exijentzia.

ErP enpresen kasuan, % 39 dira. IPPC enpresen kasuan, berriz, % 43 dira. Azkenik, I+G+B enpresak dira neurri handiagoan atzematen dutenak beren merkatuak ingurumen arloko baldintzen exijentzia areagotu duela (% 53).

ZURE USTEZ, ZENBATEAN HANDITU DA AZKEN 3 URTEETAN ZURE BEZEROEK INGURUMEN ARLOAN EZARTZEN DITUZTEN BALDINTZEN EXIJENTZIA? (%)



Iturria: Ihobe, 2011.

50 langile baino gehiagoko enpresetan, ikusten da ingurumen-baldintzen exijentzia mailak (asko + nahikoa) enpresen ehuneko handiago batean izan duela eragina (% 45etik gora), 50 langile baino gutxiagoko enpresen kasuan baino (% 32).

Era berean, egiaztatu da IKS ziurtatu bat (EMAS, ISO 14001 edo Ekoscan) daukaten enpresek horrelako baldintzen exijentziak ingurumen-ziurtagiri homologaturik ez duten enpresetan atzematen dena baino eragin handiagoa duen merkatu batean jardun ohi dutela: Lehenengoan artean, % 53k aipatzen du exijentzia horiek nabarmen egin dutela gora; gainerakoetan, berriz, % 32 dira hori aipatzen dutenak.


ZURE USTEZ, ZENBATEAN HANDITU DA AZKEN 3 URTEETAN ZURE BEZEROEK INGURUMEN ARLOAN EZARTZEN DITUZTEN BALDINTZEN EXIJENTZIA? (%)

	Enpresaren plantilla			Ziurtagiria dauka		Guztira
	10 eta 50 bitarte	51 eta 249 bitarte	250 edo gehiago	Bai	Ez	
Asko	5	9	15	10	5	6
Nahikoa	27	42	31	43	27	30
Gutxi	43	35	46	37	43	42
Ezer ez	23	8	8	7	23	20
Ed/EdE	3	7	-	4	3	3
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: Ihobe, 2011.

Ia industria-enpresen erdiak (% 49) uste dute datozen hiru urteetan asko (% 14) edo nahikoa (% 35) handituko bezeroek ezartzen dituzten ingurumen baldintzen exijentzia. IPPC enpresen kasuan, proportzio horrek % 63raino egiten du gora, eta % 69raino iristen da I+G+B enpresen kasuan; ErP enpresetan, berriz, % 56koa da.

ZURE USTEZ, DATOZEN 3 URTEETAN ZENBATERAINO IGOKO DA ZURE BEZEROEN INGURUMEN-BALDINTZEN? (%)



Iturria: Ihobe, 2011.

IPPC enpresetan hautematen da alderik handiena ustez bezeroek datozen hiru urteetan ezarriko dituzten ingurumen-baldintzen exijentziak gora egingo duenaren (asko + nahikoa) eta azken hiru urteetan gora egindakoari buruz dagoen pertzepzioaren artean (20 puntuko aldearekin); hau da, horrelako enpresak dira maila handiengan hautematen dutenak merkatu berdeak gora egingo duela. Industria-enpresen guztizkorako, hazkundearen aurreikuspena 14 puntukoa da; I+G+B enpresetan eta ErP enpresetan, berriz, % 16 eta % 17 bitarteko igoera aurreikusten da.

EAEKO INDUSTRIA-ENPRESETAKO BEZEROEN INGURUMEN-BALDINTZEN GAINEKO EXIJENTZIAREN GORA EGITEARI BURUZKO GARRANTZIAREN IRAGANEKO ETA ETORKIZUNEKO BILAKAERA (%)

Bezeroen ingurumen-baldintzen gaineko exijentziaren gora egitea	Industria-enpresak, guztira		IPPC enpresak		I+G+B enpresak		ErP enpresak	
	Azken 3 urteetan (A)	Datozen 3 urteetan (B)	Azken 3 urteetan (A)	Datozen 3 urteetan (B)	Azken 3 urteetan (A)	Datozen 3 urteetan (B)	Azken 3 urteetan (A)	Datozen 3 urteetan (B)
Handia + nahikoa	35,7	49,2	42,7	62,6	53	69,1	38,8	55,5
B-A aldea (%)	13,5		19,9		16,1		16,7	

Iturria: Ihobe, 2011.

50 langile baino gutxiagoko enpresetan, merkatu berdeak datozen hiru urteetan gora (asko + nahikoa) egingo duela uste duten enpresen ehunekoa nabarmena bada ere (% 44), nabarmen txikiagoa da 50 langile baino gehiagoko enpresetan lortutako ehunekoa baino (% 60tik gorakoa).


IKSari buruzko ziurtagiri homologatu bat (EMAS, ISO 14001 edo Ekoscan) duten enpresetatik, 10etik 7k uste dute beren merkatu berdeak nabarmen egingo duela gora datozen 3 urteetan; halako ziurtagiririk ez duten enpresetan, berriz, pertzepzio horrek % 44raino egiten du behera.

Industria-enpresen % 49k uste dute datozen hiru urteetan asko edo nahikoa handituko dela bezeroek ezartzen dituzten ingurumen baldintzen exijentzia.

05.- Hornitzaileei ezartzen zaizkien ingurumen-betekizunak

Azken hiru urteetan, EAEko industria-enpresen % 27k ingurumen-baldintzaren bat ezarri diete beren hornitzaileei. ErP enpresen kasuan, proportzio hori % 36koa da; I+G+B enpresetan, berriz, % 41 da; eta IPPC enpresen kasuan, azkenik, % 55eraino egiten du gora.

AZKEN HIRU URTEETAN BEREN HORNITZAILEEI INGURUMEN-BALDINTZAREN BAT EZARRI DIETEN ENPRESAK (%)



Iturria: Ihobe, 2011.

Egiaztatu da 50 langile baino gutxiago dituzten enpresetan, beren hornitzaileei ingurumen-baldintzaren bat ezarri merkatu berdea hedatzea bideratzen dutenen portzentajea kolektiboko % 50 baino gehixeago dela; 50 langile baino gutxiago dituzten enpresetan, berriz, portzentaje hori % 20raino jaisten da.

Ingurumena kudeatzeko sistema homologatu bat daukaten enpresetan, ia 3tik bik ingurumen-baldintzaren bat ezartzen diete beren hornitzaileei. Proportzio hori % 18raino jaisten da horrelako kreditatzerik ez duten enpresetan.

“EROSKI n uste dugu gure jarduera-esparruko edozein arlotan berritzea beharrezkoa dela enpresa-prozesurako eta gure jarduerak gizartean eta kontsumitzaileengan sortzen dituen itxaropenetara egokitzeko. Garapen jasangarria eta negoziaroko eraginkortasuna bateragarri egiten ditugu, betiere gure produktuek, zerbitzuek eta jarduerak alde interesdun guztiekiko nahiz gure jarduera-esparruarekiko dituzten elkarrekintzak kontuan hartuz.”

Agustín Markaide
EROSKIren Zuzendari Nagusia


Azken hiru urteetan, EAEko industria-enpresen % 27k ingurumen-baldintzaren bat ezarri diete beren hornitzaileei, eta hori ekoberrikuntzaren garapena bultzatzeko eragile bat izan da

06.- Ekoeraginkortasuna eta ingurumen-hobekuntza sustatzea

EAEko industria enpresen multzoan ingurumen arloko berrikuntzak sartzeko galga nagusia teknologia garbietarako –ingurumen eragin txikiagokoak eta eraginkorragoak– finantziario baldintza egokirik ez egotea da. Izan ere, % 41ek uste dute gai hori asko (% 16) edo nahikoa (% 25) geratzen ari dela.

Ingurumenaren arloko hobekuntzak sartzeko lehenengo geratze horren ondoren, ondokoak datoz, garrantziaren arabera hurrenkeran: ingurumenaren arloan langileek prestakuntza edo gaikuntza gabeziak izatea (% 26k uste dute asko geratzen dituela –%3– eta nahikoa –% 23– geratzen dituela); ingurumen gaietarako aholku- eta laguntza zerbitzurik ez izatea eta hain kutsagarriak ez diren eta eraginkorragoak diren teknologia berriei buruzko informaziorik ez izatea (% 23k uste dute asko –% 4– edo nahikoa –% 19– geratzen dituela); ingurumen-eskakizunak dituzten merkatu berriei buruzko informazio eza (% 18k adierazten dute asko –%2– edo nahikoa –% 16– geratzen dituela); eta, azkenik, ingurumen-legediari buruzko informaziorik ez izatea (% 16k aitortzen dute asko –%3– edo nahikoa –% 13– geratzen dituela).

HURRENGO GAIAK ZENBATERAINO ARI DIRA GERARAZTEN ZURE ENPRESAK INGURUMEN-HOBKUNTZAK SARTZEA? (INDUSTRIA-ENPRESAK, GUZTIRA) (%)



IPPC enpresetan, ingurumen arloko neurriak sartzeko neurri handienean galga (asko+nahikoa gerarazi) gisa azpimarratzen diren gaiak honakoak dira: batez ere, teknologia berriak finantzatzeko aldeko baldintzarik ez izatea (%50) eta, askoz neurri txikiagoan, ingurumenaren arloan langileek prestakuntza eta gaikuntza falta izatea eta hain kutsagarriak ez diren eta eraginkorragoak diren teknologia berriei buruzko informaziorik ez izatea. Izatez, orokorrean, IPPC enpresak dira neurri txikienean adierazten dutenak arlo honetan informazio, prestakuntza eta aholku eza.

I+G+B enpresetan, hiru galga nagusiak, batez ere, teknologia berriak finantzatzeko aldeko baldintzarik ez izatea (%50) eta, neurri txikiagoan, ingurumenaren arloan langileek prestakuntza eta gaikuntza falta izatea eta hain kutsagarriak ez diren eta eraginkorragoak diren teknologia berriei buruzko informaziorik ez izatea.

ErP enpresetan, berriz, honakoak dira ingurumen-neurriak sartzea hein handiagoan gerarazten ari diren hiru gai nagusiak: batez ere, teknologia berriak finantzatzeko aldeko baldintzarik ez izatea (% 45) eta, neurri txikiagoan, ingurumenaren arloko aholku- eta laguntza-zerbitzuak ez izatea, bai eta langileek prestakuntza eta gaikuntza falta izatea ere.

Enpresa mota guztietan, haien plantilla edo enplegu-estratua zein den edo ingurumena kudeatzeko sistema ziurtatu bat duten ala ez alde batera utzita, enpresek ingurumen-hobekuntzak sartzeko aipatzen duten galga teknologia berrietarako finantziazio-baldintza egokiak ez izatea da. Galga mota horri garrantzi handiena ematen dioten enpresen ehuneko handiena honako kolektiboen artean dago: 50 langile baino gehiago dituztenak eta IKS homologatu bat dutenak (EMAS, ISO 14001, Ekoscan). Izan ere, bi kolektibo horietan % 23k aipatzen dute hori oso galga handia dela.

Bestalde, 50 langile baino gehiago dituzten enpresen artean eta IKS ziurtatu bat duten enpresen artean, gehien adierazten den bigarren oztopoa da hain kutsagarriak ez diren eta eraginkorragoak diren teknologia berriei buruzko informazio falta.

50 langile baino gutxiago dituzten eta IKS homologaturik ez duten enpresen kasuan, oztopo desberdinei ematen zaien garrantzia industria-enpresetan, orokorrean, jasotakoaren antzekoa da.

“ORMAZABALEk Eraldaketa Zentro batean ekodiseinuko proiektu bati ekiteko garaian izan genuen erronka nagusietako bat izan zen esperientzia hori asimilatua izan ahal izatea erakundeetan jada existitzen zen I+G+B prozesuko jardun operatiboan. Gainera, produktuan hobekuntza garrantzitsuak lortu ziren; esate baterako, ingurumen eragin orokorra % 28,6 gutxitzea, erabileraren kontsumo energetikoa % 31,2 gutxitzea eta eraldaketa zentroaren gutzizko pisua % 44,1 gutxitzea.

Gainera, ekimenak hobekuntza batzuk ekarri zizkion enpresari. Esate baterako, ingurumenaren ebaluaziorako eta hobekuntzarako metodologia praktikoa bat ezartzea; ekodiseinuko ErP zuzentzarako etorkizuneko betekizunekin bat egitea; fabrikazio prozesuak eraginkortasuna hobetzea; ekodiseinuaren bitartez berrikuntzarako ahalmena areagotzea, eta merkatuan toki hobea lortzea.”

Asier Arteche
Ormazabaleko I+G+B arloaren arduraduna


Enpresen arabera, ingurumen arloko berrikuntzak sartzeko galga nagusia teknologia garbietarako finantziazio baldintza egokirik ez egotea da

07.- Balioespen publikoa eta ingurumen-arloko inplikazioa

Industria-enpresen % 42k garrantzi handia (% 8) edo nahiko handia (% 37) ematen diote beren enpresari aitorten publikoa eta sustapena emateari ekoeraginkortasunaren eta ingurumen-inplikazioaren ondorioz 1.

Nabarmentzekoa da IPPC enpresen kasuan proportzio hori % 68ra iristen dela.

ZENBATEKO GARRANTZIA EMATEN DIOZU ZURE ENPRESARI, EKOERAGINKORTASUNA ETA INGURUMEN-INPLIKAZIOA DIRELA-ETA, AITORPEN PUBLIKOA ETA SUSTAPENA EMATEARI? (%)



Iturria: Ihobe, 2011.

Enpresen enpleguaren edo langileriaren tamaina zenbat eta handiagoa izan, orduan eta garrantzi handiagoa ematen zaie enpresei ekoeraginkortasuna eta ingurumen-inplikazioa direla-eta aitortpena eta sustapena emateko jardueri: 50 langile baino gutxiago dituzten enpresetan, % 39k garrantzi handia edo nahiko handia ematen diete jarduerari horiei; 51-249 langile bitarte dituzten enpresetan, berriz, portzentaje hori kolektiboaren guztizkoaren ia erdia da (% 49).

Ingurumena kudeatzeko sistema ziurtatu bat daukaten enpresen artean, sustapen jarduerari horiei garrantzia ematen dituen enpresen ehuneko askoz handiagoa da halako sistematik ez duten enpresena baino: % 68 eta % 38, hurrenez hurren.

¹ Kontuan hartzen ari gara hainbat alderdi, hala nola: Ingurumen Sariak enpresari, ziurtagiria duen Ingurumena kudeatzeko Sistema -IKS-, aitorten-ekintza ofizialak, etab.

08.- Ondorioak

1

Kostuak gutxitzea, enpresen helburu nagusia, lehiakortasuna handitzeko

Euskal enpresen % 52k uste dute lehiakorrek izateko bi helburu garrantzitsuenetako bat kostuak gutxitzea dela. Produktibotasuna (% 45), merkatu berriak zabaltzea, batez ere nazioartean (% 40) eta teknologia eta berrikuntza sartzea (% 27) dira enpresen lehiakortasuna hobetzeko gako gisa jotzen diren beste hiru faktoreak.

Europa-mailan, lehengaien kostuak industrian % 50era iristen dira batez beste. Enpresaburu europarren % 75ek hautematen dute nabarmen hazten ari direla. Kostu horiek gutxitzeko potentzialak % 20 inguru direla jotzen da, baita teknologikoki aurreratutako herrialdeetako enpresetan ere. Lehengaien kontsumo erlatiboa gutxitzeko estrategia gisa, Ekoeraginkortasuna erantzun egoki bat dela jotzen da, jada Europar Batasuneko “Baliabideen eraginkortasuna” ekimen enblematikoak aurreratu duen bezala.

Bestalde, kontuan hartzen badugu euskal enpresek adierazten dutela azterlan horretan ezen beren esportazioen ia % 60 Europa erdialderako eta Europa iparralderako direla, non enpresen, kontsumitzaileen eta Administrazioaren ingurumen-baldintzak zorrotzagoak baitira euskal merkatuan edo Espainiako merkatuan baino, aurreikus dezakegu ingurumena lagungarri gerta daitekeela EAEn diseinatu edo fabrikatutako produktu eta zerbitzuak nazioarteratzeko.

2

Bezeroen betekizunak eta legedia euskal enpresetan ingurumena hobetzeko eragileak dir

Euskal enpresek hautematen dute honakoak direla ingurumenaren arloa dela-eta lehiakortasun handiagoa lortzeko biderik onenak: batetik, produkzio-prozesuetan zein produktuetan (% 41) eragina duen ingurumen arloko legedia, eta bestetik enpresen bezeroen –publikoen nahiz amaierako kontsumitzaileen– ingurumen betekizunak (% 39). Azken batean uste dute ingurumen arloko hobekuntza lehiakorra bi herenetan kanpoko faktoreek motibatzen dutela, eta garrantzi txikiagoa ematen diete barneko motibazio faktoreei. Esate baterako, lehengaien kostuetan aurrezteak (% 19), zeinari, dirudienez, balio txikiagoa ematen baitzaio, egiazki duten eraginari begiratzen bazaio; edo zuzendaritzak ingurumena dela-eta daukan konpromisoa (% 13), zeinak nabarmen atzera egiten baitu industria ekobarometroaren aurreko edizioekin alderatuta.

Ingurumenaren arloko legedia dela eta, nabarmentzekoa da oso faktore ezezaguna dela. Izan ere, ez-ezagutze hori aurreko beste azterlan batzuen aldean zer edo zer gutxitu bada ere, oraindik ere % 37koa da.

Euskal enpresetan eragina duen legedia zabaltzera emateko ahaleginek enpresek ingurumenean inplikazio handiagoa izatea ekarriko dute. Hala eta guztiz ere, oraindik ere garrantzitsuagoa da bezeroek, baita toki mailan ere, ezartzen dituzten ingurumen-betekizunen handitzeko joera. Izan ere, kontuan hartu behar da euskal enpresen % 27k (% 66 Ingurumena Kudeatzeko Sistema ziurtatu bat daukaten enpresen kasuan) jada ingurumen arloko betekizunak ezarri dizkietela beren hornitzaileei azken hiru urteetan, eta hornitzaileen % 40k jada produktua ingurumenaren ikuspuntutik hobetzeko neurriak ezarri dituztela. Hori dela eta, aurreikusten da produktuak eta zerbitzuak % 13 “berdetuko” direla. Horrenbestez, jo dezakegu oso ere eragingarriak direla enpresetako bezeroen eta bezero publikoen **etorkizuneko ingurumen betekizunak** ikustarazteko eta sozializatzeko jarduketak.

3

Euskal enpresen %40k ingurumen-hobekuntzak egin dituzte beren produktuetan

Produktuak eta zerbitzuak berdetzearen garrantziak nabarmen egin du gora azken urte hauetan. Gaur egun, euskal enpresen % 40 baino gehiagok diote ingurumenaren arloko hobekuntzak egin dituztela beren produktuetan azken hiru urteetan –Ekobarometro Industrialaren aurreko azterlanetan, berriz, % 12 ziren (ecoa 2007, 2004 eta 2002)–, eta enpresen % 31k beren zerbitzuak berdetu dituzte. Produkzio-prozesuetako ingurumen arloko hobekuntzak –enpresa proaktiboak % 55 dira– oraindik ere garrantzitsuenak dira, baina iraganean zeuden antzeko mailetan jarraitzen dute.

Gainera, hautematen dugu euskal enpresek, hurrengo hiru urteetarako, antzeko garrantzia (% 50ekoa) ematen dietela batetik ekoeraginkortasunari –hau da, produkzio-prozesuetan lehengaiak eta energia aurrezteari– eta bestetik, harrigarriki, produktu berdeagoak lortzeko berrikuntzari eta beren bezeroen ingurumen arloko betekizunei.

Joera hori, halere, guztiz koherentea da beren merkaturuetan bereizteko eta gero eta zorrotzagoak diren bezero batzuei egokitzeko enpresek hautematen duten premia-rekin.

4

IPPC araudiak ukitutako euskal enpresak, i+gean inbertitzen dutenak eta ingurumena kudeatzeko sistema ziurtatuak dituztenak dira ingurumena hobetzeko jokabide proaktiboena erakusten dutenak

IPPC araudiak ukitutako gure enpresak, i+gean inbertitzen dutenak eta ingurumena kudeatzeko sistema ziurtatu bat (EMAS, ISO 14006 edo ekoscan) daukatenak zoriondu behar ditugu, ingurumena dela-eta daukaten jarrerarengatik eta konpromisoarengatik.

Enpresa horiek gainerakoek bi halako dira esportazioei dagokienez (% 40 IPPC enpresetan eta % 34 I+Gan inbertitzen duten enpresetan), eta bereziki proaktiboak dira beren produkzio-prozesuak hobetzerakoan: % 83 IPPC enpresen kasuan eta % 79 I+G enpresetan nahiz ingurumena kudeatzeko sistema ziurtatu bat duten enpresetan. Batez bestekoa, aldiz, % 55 da. Produktuak ingurumenaren ikuspuntutik aktiboki lantzeari dagokionez ere, hogeit puntutan gainditzen dute batez bestekoa: % 60 ingurumena kudeatzeko sistema ziurtatua duten enpresetan, % 58 I+G enpresetan eta % 57 IPPC enpresetan.

Hornitzaileei ingurumen arloko betekizunak ezartzea da, zalantzarik gabe, kolektibo horiek euskal enpresen batez bestekotik gehien bereizten dituen jarduketa. Ingurumena kudeatzeko sistema ziurtatua duten enpresen % 66k, IPPC enpresen % 55ek eta I+G enpresen % 41ek ingurumen alderdiak exijitzen dituzte beren balioen katean; euskal enpresen batez bestekoa, aldiz, % 27 da.

Kontuan izanda bezeroen eskariek egungo abagune ekonomikoan daukaten garrantzia, jo dezakegu hiru kolektibo hauek –horien artean, kopuruari erreparatuta, ISO 14001 ziurtagiria duten enpresak nabarmentzen dira– bereziki laguntzen dutela ingurumena lehiakortasun faktore bat bilakatzeko.

5

Aitorpen publiko handiagoa, finantziaroko sarbidea eta adituen oreintabideak dira euskal enpresek gehien eskatzen dituzten alderdiak

Euskal enpresen % 42k jotzen dute ingurumena dela-eta daukaten inplikazioarengatik eta konpromisoarengatik aitorpen publikoa garrantzitsua dela eta balioa ematen diela. Kopuru horiek % 68raino iristen dira IPPC enpresen kasuan eta % 58raino ingurumena kudeatzeko sistema ziurtatu bat daukaten enpresen kasuan.

Bestalde, ingurumenaren arloko hobekuntzak sartzeko oztopo garrantzitsua da finantziaroko aldeko baldintzarik ez egotea ingurumenaren arloko teknologiak sartzeko. Enpresen % 41ek dioenez, horixe da ingurumen-hobekuntzarako eragozpen nagusia. Enpresen % 79k ez dute ezagutzen Teknologia Garbien Euskal Zerrenda, zeinak kuotaren gaineko % 30eraino kenkariak biltzen baititu.

Egiazki informazio, gaitasun eta orientazio falta dira ingurumen arloko hobekuntzak sartzeko beste galga bat. Enpresen % 26k prestakuntza gehiago eskatzen dute; % 23k orientazio teknologiko eta ekoeraginkor gehiago eta % 18k merkatuen ingurumen eskakizunei hobeki aurre hartzea. Horrek guztiak lehenengo planoan jartzen du enpresek ingurumena dela-eta orientazio independente eta zorrotz hobia edukitzeko beharra. Hain zuzen ere, merkatuaren eskakizunei buruzko zalantzaren alderdi hori da Europako enpresaburu gehienek (% 67) ekoeraginkortasunerako eta ekoberrikuntzarako ikusten duten oztoporik handiena.

“Aeronautikaren sektorean, operatzeko kostuak oso handiak dira, eta horien artean erregaiaren kontsumoa bereziki garrantzitsua da. Horrekin batera, kontuan hartu beharra dago aireportuetan zarata gutxitzeari buruz gero eta arau gehiago ezartzen ari direla. Ildo horretatik, oso grafikoa da Europar Batasunak hegazkintzaren hurrengo hamarkadarako duen eslogana:

“seguruagoa, garbiagoa, isilagoa eta merkeagoa”. Horrenbestez, ITPk bere gain hartzen du bere produktuen ingurumen-hobekuntza etorkizuneko lehiakortasuna bermatzeko, I+Garen % 70 inguru inbertituz funtsean kontsumoa (emisioak) eta zarata gutxitzea bideratutako jarduketetan.”

Jesús Murga

Industria de Turbo Propulsores S.A.ko Kalitate eta Ingurumen zuzendaria

Erreferentziak

1. Industria Ekobarometroa (2002, 2004 eta 2007ko edizioak), Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, Bilbo. Eusko Jaurlaritza
2. “Baliabideen eraginkortasuna” Ekimen Enblematikoa, Europako Batzordea, COM (2011) 21 amaiera.
3. Green Tech Made in Germany 2.0 – Environmental Technology Atlas (2009), Ingurumeneko Ministerio Federala.
4. “SMEs and the environment in the European Union” (2010) Europako Batzordeko Enpresen eta Industriaren Zuzendaritza Nagusirako eginiko txostena, 2007-2013 urteetarako Lehiakortasuna eta Berrikuntza Programaren barruan.
5. Flash Eurobarometer (315 zk.): “Attitudes of European entrepreneurs towards eco-innovation” (2011) Europako Batzordea.

